2026ko urriaren 23a **7. zenbakia**

Artezkaritza kontseiluaren bilera-data

Datorren asteazkenean, urriak 28, Artezkaritza Kontseiluaren hurrengo bilera izango da. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkaritza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinarazi dezakezue.

Udarregiren eraldaketa prozesua

Udarregi Ikastolan eraldaketa prozesuan gauden honetan, gure ardatza Pertsona Eredua komunitate osoan berdin ulertzea eta elkarlanean garatzea da. Horretarako, ezinbestekotzat jotzen dugu familiok prozesu honetan parte hartzea.

Prozesu parte hartzaile hau **bi saiotan** egituratu da. Bakoitza ordu eta erdikoa izango da. Lanketa, hasiera batean, etapaka egingo da ondorengo datetan.

- **DBH, urriak 26 eta azaroak 9.**
- **LH, urriak 29 eta azaroak 10.**
- **HH, urriak 28 eta azaroak 11.**

LHKO SAIOAREN DATA ALDATU EGIN DA, URRIAK 27TIK 29RA.

Bilera guztiak **Agerialdeko 3.solairuan** egingo dira arratsaldeko **16.45**tan hasita. Zure seme edo alabaren etapako bilerara ezin izango bazenu etorri beste etapa bateko bileran ongi etorria izango zara.

Parte hartu nahi eta oraindik izena eman ez duzuenok, galdetegia betetzeko aukera duzue.

GURE AMETSA HAU KOMUNITATEAN ETA ELKARLANEAN AURRERA EMATEA DA. ANIMATU ETA IZENA EMAN.

Jangela batzordea

Datorren **astelehenean**, urriak 26, jangela batzordea elkartuko da **15:30**etan **eraikin gorrian**. Bertara etortzeko interesa duen edonor dago gonbidatuta.

Jangela-zerbitzua

Urrian bazkaldarrek izango duten menuan aldaketa bat egin da urriaren 30erako: jogurtaren ordez, fruta eskainiko da. Honako esteka hauetan ikus ditzakezue: menu arruntak eta menu bereziak.

Euskararen altxorraren bila - asteroko lehiaketa

Euskararen Egunaren harira, **asteroko lehiaketa** martxan jarriko dugu Ikastolan. Aste bakoitzean **bi galdera** erantzun beharko dira:

- 🗺️ **Galdera bat:** erantzuna Ikastolan ikusgai egongo den mapan aurkitu ahal izango da.
- 🔎 **Beste galdera:** erantzuna bilatu beharko da, eta **Euskal Herriko historia, geografia eta kulturarekin** lotutako gaiei buruzkoa izango da.

Parte hartzeko, **norberaren izenarekin betetako erantzun-orria erantzun-kutxan** utzi beharko da. Ikasleek bota beharko dute erantzuna kutxara, baina, familiako kideek lagun dezakete erantzuten, noski (HHko ikasle-familiek, bereziki). Erantzun orriak gelan izango dituzte eskuragai.

Parte hartzeagatik puntu 1 jasoko da, eta **erantzun zuzena emateagatik beste 2 puntu**. Lortutako **puntu bakoitzak boleto bat** emango du, eta, horrela, aukera gehiago izango dira **Euskararen Egunean zozketatuko den kamiseta** irabazteko.

Ea zenbat erantzun asmatzen dituzuen! Animo eta parte hartu!

Errigora kanpaina

Hemen da berriz Errigoraren Euskarari Puzka kanpaina "Auzolanean euskara sustraitik espaziora" lelopean. Nafarroa erdi eta hegoaldean lanean ari diren euskalgintzako eragileen (AEK, Sortzen, Ikastolak eta Agerraldia) ezinbesteko lana sostengatzeko aukera.

Batu auzolan erraldoi honetara! Kanpaina **azaroaren 12ra arte** egongo da martxan. Saskiak eskatuz, balioaren %25a Ager zonaldeko euskalgintzara bideratuko da zuzenean. Ureztatu dezagun euskara denon artean!

Txokolatedun egutegiaren salmenta

Aurten ere, Hendaiako ikastolatik txokolate-egutegien salmenta-kanpainan laguntzeko proposamena egin digute. Abenduaren 1etik 24ra irekitzeko 24 lehiatila ditu eta bakoitzaren atzean Baigorriko Laia txokolategiko txokolatea topatuko duzue.

Prezioa 12 eurokoa da eta **eskaera azaroaren 6**a bitarte egin daiteke galdetegi hau betez.

Eskaeraren **dirua tutoreari** emango zaio data horretarako. Egutegiak azaroko azken astean jasoko dira.

Ipuin kontalaria Sutegin

Urriaren 28an, **asteazkena**rekin, **18:00**etan, **Sutegi Liburutegian**, familia osoari zuzendutako ipuin kontaketa saio musikatua Ameli eta Xirrikituen Jostunak bikotearen eskutik eskainiko da.

HAUR HEZKUNTZA

Guraso-bilerak

HHko ikasturte hasierako bileren datak honako hauek dituzue:

- **HH2** **Urriak 29**
- **HH3** **Urriak 27**

Bileretan zaintza zerbitzua eskainiko da. Hala ere, HH2koen kasuan haurrik gabe etortzea gomendatzen da.Bilerak, ikasleen gelatan egingo ditugu, **16:45**etan.

Bileretan azalduko den informazioaren txostena aurrez helaraziko zaizue.

Baso eskola

Gogoratu HH4 eta HH5en datorren astean hasiko direla baso eskolako saioak.

- HH5 urriaren 28an, asteazkena.
- HH4 urriaren 29an, osteguna.

"Hezur lapur badator" ipuina



Aste honetan ikastolako guraso diren Ander Zuloagak idatzi eta Carola Giraudok diseinatutako Gau Beltzeko ipuina banatuko zaie ikasleei.
Noaua! Kultur elkarteak argitaratu du Udalaren laguntzarekin.
Gozatu ezazue!

LEHEN HEZKUNTZA

Ikasleekin pantailen erabilera egokiaren inguruko lanketaren deskargua



Aste hauetan Udarregi Ikastolako LH5eko ikasleek, pantailen erabilera egokiaren inguruan hausnartzeko saioak egin dituzte Miren Rosekin. Orain, Mirenek geletan ikasleekin landutakoa azalduko die gurasoei bilera batean.

- Data: Urriaren 27, asteartea, 17:00tan, Agerialdeko 3. solairuan.
- Nori zuzendua: saioaren hasieran geletan ikasleekin landutakoaren azalpena egingo da. Hala ere, gaiarekin interesatuak dauden beste familiak ere etor daitezke.

"Hezur lapur badator" ipuina



Aste honetan ikastolako guraso diren Ander Zuloagak idatzi eta Carola Giraudok diseinatutako Gau Beltzeko ipuina banatuko zaie ikasleei.
Noaua! Kultur elkarteak argitaratu du Udalaren laguntzarekin.
Gozatu ezazue!

Eskola osasun programa

Urrialk 28an, LH 6-ko ikasle baimenduek, eskola osasuneko programa barruan dauden ACWI meningokokoaren eta giza papilomaren birusaren kontrako txertoak jasoko dituzte.

Osakidetza

BIGARREN HEZKUNTZA

Ikasleekin pantailen erabilera egokiaren inguruko lanketaren deskargua

Aste hauetan Udarregi Ikastolako DBH1eko ikasleek, pantailen erabilera egokiaren inguruan hausnartzeko saioak egin dituzte Miren Rosekin. Orain, Mirenek geletan ikasleekin landutakoa azalduko die gurasoei bilera batean.

- Data: Urriaren 27 asteartea, 17:00tan, Agerialdeko 3. solairuan.
- Nori zuzendua: saioaren hasieran geletan ikasleekin landutakoaren azalpena egingo da. Hala ere, gaiarekin interesatuak dauden beste familiak ere etor daitezke.

Galdutako gauzak

DBH-ko eraikinean ahaztutako edo galdutako arroparen txokoan dagoen guztia Caritaseko ontzira eramango da bi aste barru. Norbaitek zerbait falta duela somatu badu, bertan dagoen begiratzea aholkatzen da.